

AIARALDEA *hemen*



JENDARTEA:
Sukalde ekologikoa jarri dute abian Urduñako Herri Ikastetxean 2 or.

HEZKUNTZA:
Greziako errefuxiatuak laguntzera joan dira 14 gazte kooperatiba sortuta 4 or.



Manuel Murias, Urduñako alkatea Guda Zibilean

KONDENATUA, INDULTATUA, FUSILATUA



Argazkia: Murias sendia eta Bizkaiko Errepublikazale

LAUDIO 3

Herriguneko kaleak konponduko ditu Audioko Udalak

Karmen kaleko errepidean obrak egingo dituzte, baita aparkalekuetan ere

ARTZINIEGA 7

Erdi Aroko azoka antolatuko du udalak larunbat honetarako

Egun osoko egitaraua prestatu dute, baina elkarteek ez dute antolakuntzan parte hartu

AIARA 8

Babioko tontorrean K.a. IX.mendeko herrixka industu dute

1984.urtean aurkitu zuten, baina babes ezagatik orain hasi dira ikertzen

KIROLA 19

Hodei Oleaga futbolari laudioarra Athleticen lehen taldean

Athletic Clubeko lehen mailako taldearekin aritu da udan atezain laudioarra

KULTURA 17

Euskaraldia antolatzen bilerak egiten ari dira herrietan

Euskara areagotzeko "Ahobizi" eta "Belarriprestak" aktibatzea da helburua

USHUAIA
Dionisio Aldama, 20
(Geltokiaren aurrean) AMURRIO
Tel. 945 89 08 41
Asteartetik ostiralera: 9:30/19:00 (EGUERDIAN ERE ZABALIK) Larunbatetan: 9:00/14:00
ILEAPAINDEGI MISTOA · EDERTASUNA · LURRINDEGIA · OSAGARRIAK
ORRAZKERA BEREZI ETA DOTOREAK
· Estentsioak eta ileordeak
· Ezkonberri, amabitxi eta gonbidatuentzako osagarri eta apaingarriak
(loreak, brotzeak, kristalezko urkilak, lumak eta ilerako bitxiak)
HITZORDUA HARTZEKO: 945 89 08 41
Behin-betiko depilazioa · Sauna · Solariuma
Ushuaia Peluqueria & Estética/Perfumería

JEZ Zuri esker sortzen, berritzen eta amesten dihardugu. JEZ, konpromisoa.
BULTZATZEN GAITURU... BODEEN BATZEN GAITURU

herriz herri

Urduña

Duela egun gutxi hasi zen udal sukalde ekologikoa bazkariko menuak prestatzen Urduñako Herri Eskolako umeentzat. Ia 10 urte igaro dira egitasmoa abiatu zutenetik eta zenbait

oztopo gaindituta, proiektua abiatu dute. Herri eskolako jantokiak ateak ireki dizkie umeei, tokiko ekoizleei eta osasunari.

Udal sukalde ekologikoa martxan, herri ikastetxean ere



Urduñako Herri Ikastetxeak hartu du Edadetuen Egoitzako proiektuaren lekukoa. **Urduñako Udala**



Testua
Aitor Aspuru Saez

Pasa den ostiralean -ikasturte berriarekin, alegia- aukera izan zuten lehen aldiz Urduñako Herri Eskolako ikasleek bazkari ekologikoa eta tokikoa dastatzeko. Urte ugari ostean gauzatu dute proiektua eta, horregatik, ikusmin handia sortu zuen. Berez, Marijo Imaz bultzatzaileetako batek adierazi duenez, askok uste zuten inoiz ez zela hasiko sukaldearen jarduera. Horrek dozenaka ume, guraso eta interesdun erakarri zituen, baita hunkitu ere.

Edonola ere, pastaz, itsas kabraz eta frutaz osatutako lehenengo menu horren historia gorabeheratsua izan da, eta erakusten du mahaia gainean jartzen dena ez dela soilik gastronomia, baizik eta hainbat

esparrutan eragiten duela; erakunde publikoetan, ekologian eta ekonomian, besteak beste.

Hala ere, Marijo Imaz Ekoizpeneko teknikariak atzean utzi du polemika osoa. “Egitasmoan zenbait moldaketa egin eta gero, 2017an lortu genituen baimen guztiak, eta garrantzitsuena da errealitate bihurtu dela ekimena. Programa pilotu baten barruan gaude eta emaitzak bistakoak dira: tokiko ekoizleekin lan egin nahi dugu eta hemen bertan sustatu lanpostuak zenbait baliori lotuta”.

Aurrerapauso horri esker, orain 55 helduk eta 136 umek tokiko, sasoiko eta ekologikoak diren produktuak izango dituzte euren menuetan egunero.

Berez, Urduñako Herri Eskola batuko da Nagusien Egoitzako praktikara. “Herri eskolako eta

Nagusien Egoitzako jantokiak lotuta egon dira hasieratik”. 2009an irizpide ekologikoak ezartzeko gogoetak hasi zirenean biak harremanetan jartzeko beharra sumatu zuten. Alabaina, ikastetxeak ez zuten lekuri azpiegitura horretarako; eta, ondorioz, catering zerbitzuak kontratatzeraz kondanatua zegoen. Bultzatzaileen aburuz, ez zen bideragarria sukalde berria egitea eskolan.

Gauzak horrela, eta eraikin biak 5 metrora daudela baliatuta, konponbidea bururatu zitzaion: udal sukalde zentrala egitea zahar-etxean. Aurreproiektua osatu eta Eusko Jaurlaritzari aurkeztu zioten. Sukaldean obrak egiteko lizentzia eskatu zuten gero, eta lan horien aldeko txostena idatzi zuen Osasun Sailak.

2012ko udazkenean ekin

Urduñako Edadetuen egoitzan ez ezik, Herri Ikastetxean ere jarri dute abian tokiko sukalde ekologikoa. Lehengaiak eroatera bideratzen den dirua eskualdean geratuko da

zieten Edadetuen Etxeko obrei, eta 2015ean hasi ziren tokiko produktuekin funtzionatzen. “Oso aldaketa handia” izan zen, Imazen iritziz: “Lehengaiak kozinatze modua aldatu da, eta handitu egin da fruta kontsumoa ere, lehen fruta berde iritsi eta berehala usteltzen zelako. Sukaldarientzat ere askoz erosoagoa da produktu freskoekin lan egitea”.

Ekonomian ere isla izango du, lehengaietan gastatzen diren 80.000-90.000 euroak eskualdean geratzen baitira jadanik, eta berehala horri gehitu beharko zaio eskolako horniketa.

Gainera, diru kopurua ez da agroindustriaren geratuko, baizik eta tokiko ekoizleen esku. Aldi berean, sektore ekonomiko hori babestean, eskualdeko ekonomia, osasuna eta ingurumenari oxigenoa emango zaie.

Laudio

Karmen kalea eta beste hainbat bide konponduko dituzte



Karmen kaleko konkorak kenduko dituzte, eta espaloia egokitu. AiaraIdeia.eus

Testua
Izar Mendiguren Cosgaya

Herriguneko zenbait zoru berrituko ditu Laudioko Udalak. Aurrekontua 285.000 eurokoa da, eta landa eremuko 60.000 eurokoa. Hortaz, guztira, 345.000€ bideratuko dira lanetara, Amets Meatza Castañares zinegotziaren hitzetan. "Diru kopuru gehiena Karmen kalearen atonketan erabiliko dugu, Jose Arrue eta Araba kaleen artean", zehaztu du gobernu taldeko kideak. "Konkorak kendu egingo ditugu, espaloiak

egokituta". Halaber, industrialdeko zenbait gunere hobetuko dituzte: Ikazkin kalea edota Katuxa Ibarra kasu. Era berean, Zubiko Kurajoko oinezkoen ibilbidea txukunduko dute, Nerbioiko parke linealeko lehen zatia.

Bestalde, herriko aparkalekuak ere finduko dituzte. Horien artean daude Ellakuriko igerilekuen azpiko ilada, edota Hiru-gurutzetako ibai ertzeko aparkalekua (Gardea). Horrez gain, Motxotekale kalean zein Kamaraka eta Arantzar bitartean ere egingo dira lanak. "Iaz nagusiki errepide

de nagusian zentratu ginen, aurreten pabilioien beste inguruetan".

Herrigunean baino azkarrago gauzatuko dituzte nekazal eremuak konponketak, enpresa irabazleak 2 hilabete izango baititu. Dena den, eskaintzak aurkezteko epea berdina izango da: 20 egun. "Lote nagusian Larragibeletik Orueta eta Belduirako bidea dago, 3 zati: Aranguti, Olarte, Gaztaintza".

Horrez gain, Arrañoiko igogailu berria ere martxan dago, irisgarritasuna hobetzeko. 468.000€ balio izan ditu obra horrek.

Amianto salaketa atzera bota du Fiskaltzak

Testua
Aitor Aspuru Saez

Udan Laudioko Udalaren aurkako bi salaketak bertan behera geratu dira amiantoari dagokionez. Latorro Ikastetxeko ikasle ohi baten aitak abiatu zuen auzia, eta Fiskaltzak eta Arartekoak egokitzen jo dute tokiko erakundearen jokaera. Alde batetik, fiska-

lek artxibatu dute salaketa. Bestetik, Arartekoak txostena osatu du azaltzeko udalak arazo horren inguruko proiektu guztiak gurasoen esku utzi zituela. Berez, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak konpromisoa adierazi du 2020an, beranduenez, amianto guztiz kentzeko ikastetxetik.

Jon Ander Altubek azaldu du gobernu taldeak 2013an hartu-

tako bideari jarraituko diola eta espero dutela 2020an amiantorik ez geratzea Latorro. Horrez gain, nabarmendu nahi izan du fiskalak ez duela delitu zantzurik aurkitu, eta Arartekoak ziurtatu duela erakundeak ez duela informazioz ezkutatu. EH Bilduren ustez, eskola komunitatea da errentzat zilegitasuna duen ordezkaria.

Egoitza Zaharra atontzeari uko

Testua
Aitor Aspuru Saez

Laudioko Udalak uko egin dio Nagusien egoitza zaharra berri-tzeko Arabako Foru Aldundiak emandako 300.000 euroko diru-laguntzari.

Jon Ander Altube EH Bilduko bozeramaileak argitu du 2018a ez dela jarduera egokia inbertsio hori egiteko. Izan ere, oposizioak bestelako egitasmoak babestu ditu egoitza zaharraren orde-z.

EH Bilduk aurrekontuak luzatzea erabaki zuen eta maiatzean inbertsio zerrenda aurkeztu zuen udalbatzan. Oposizioak ezeko bozka eman zion zerrendari; eta, ondoren, negoziaketak abia-

tu zituzten berria sortzeko. Horien artean ez zegoen nagusien egoitza zaharra.

Berez, 2018an berretsi behar zuen udal osoko bilkurak iaz bideratutako diru kopurua lan horietarako, eta soilik EH Bilduk eman zion lehentasuna proiektuari. Oposizioak alderdiek beste ekimen batzuei garrantzia gehiago eman zieten. Ondorioz, ez dago aukerarik gastu horri aurre egiteko. Guztira, 2.200.000 euroko balioa dute obrek.

Edonola ere, Altubek nabarmendu du 2020-2021 Obren Foru Planean aurkeztuko dutela berri-ro proiektua: "Aurreko deialdian onartu bazen, ez dut uste arazorik egongo denik diru-laguntza berreskuratzeko".

hitz logopedia

PROFESIONAL EUSKALDUNAK ZURE ZERBITZURA

ESKaintza Berria

- Fisioterapia pediatrikoa
- Psikologia
- Arreta goiztiarra (0-6 urte bitartekoa)
- Gaitasun handiko ikasleei detekzioa eta terapia

EVA ALONSO LARRAZABAL
LOGOPEDA eta PEDAGOGA

Eba_alonso@hotmail.com

Karmen kalea 39, 01400 LAUDIO
Tel.: 94 672 63 91/ 656 74 27 22

bai
euskarari
zerbitzua euskaraz

herriz herri

Laudio

Greziako errefuxiatuak laguntzen ari dira 14 gazte

Irailaren 5ean abiatu ziren Greziara, eta 13an itzuliko dira. **Julen Zubiete Iza**

Testua
Aitor Aspuru Saez

Laudio Ikastolako gazteek sustatutako Hesi Hesi Kooperatibako dozena bat gaztek jo dute Atenasera, Grezian pilatzen diren hainbat errefuxiatuekin elkarlanean aritzeko. Bihar itzuliko dira.

Pasa den asteazkenean abiatu ziren herritik eta egun osoa bidaiatzen eman eta gero, gauz heldu ziren hiriburu heleniarrera. Hurrengo egunean buru-belarri sartu ziren Victoria Social Centerrean. 2017an ireki zuten lekua eta izen bereko plazan dago. 980 metro koadro ditu, eta 7 solairu. Egunero 650 bazkari baino gehiago eman, eta hainbat zerbitzu eskaintzen dituzte errefuxiatuentzat: medikuak, trebakuntza, esne eta

pixoihal banaketa...

Herrialde ugariko lagunek erabiltzen dute, baina gehienak Siria eta Afganistangoak dira. Hori bai, Afrikakoak ere badaude. Lehen egunean begirale lanak bete zituzten audioarrek eta umekin egon ziren jolasten.

Hurrengo egunetan ardura horiek hartu ez ezik, bestelakoak ere hautatu zituzten zentroko irakasleak laguntzen. Izan ere, errefuxiatuei greziar, alemaniar, ingeles eta espainiar klaseak ematen dizkiete. Emakumeentzako gunea dagoenez, neska talde batek horretan lan egin du azazkalak margotzen edota zumba saioa antolatzen.

Lan gogorrak ere izan dituzte. Adibidez, ostiralean pixoihalen antolaketa eta banaketa gauzatu zuten.

Hotel okupatu batean ere egon dira gazteak, City Plazan, alegia. 3 eragilek eskuratu zuten 2016an, kale gorrian zeuden errefuxiatuei etxea eskaintzeko. Berez, 15 boluntario egoten dira han eta jatorri oso anitzeko 250 atzerritar bizi dira; logela bat familia bakoitzeko.

Laudioarrek sukaldean lagundu dute afaria egiten eta, horrez gain, garbiketa eta antolaketa lanetan. Hotela kudeatzen dutenek jakinarazi diete gune ezberdinak daudela elkarlanerako. Horietako bat da segurtasuna. Berez, talde faxisten erasoak izan dituzte eta, ondorioz, 24 orduz kontrolatzen dituzte inguruak arazoak ekiditeko. Beste gunea sukaldea da eta, azkenik, taberna dago, hoteleko zein kanpoko jendea harremanetan egon dadin.

Amurrio

25 urte bete ditu Artzain Egunak

Ardiekin egten den lana izango da ikusgai. **Aiaraldea.eus**

Testua
Izar Mendiguren Cosgaya

25 urte beteko ditu aurten Amurrioko Artzain egunak. Ohi bezala, egun osoko egitaraua prestatu dute. Larunbatean izango da aurreneko ekintza, 12:00etako XIV. Kanpai kontzertua.

Goizean, 3 ardi txapelketa

Igande goizean, aldiz, ardiak izango dira nagusi. 10:00etatik 14:30era Latxa arrazako ardien probintziarteko XXIV. lehiaketa jokatu dute. Horrez gain, Arabako esnetarako artalde mutur-beltz eta mutur-gorri onenen lehiaketa eta erakusketa egongo dira; baita eskualdeko esne kontrolako ardi onenen txapelketa ere.

Ez-ohiko ardi motak ezagutzeko parada eskainiko du, halaber, Amurriok.

Izan ere, "sasi ardi arraza" hurbilduko dute herrigunera, Euskal Herriko bertako arraza, hain zuzen. Antolatzaileen hitzetan, ez da ohiko jardura: "Babes berezia du animaliak".

Gaztak ere izango du tartea programan, ardi-gaztaren XI. txapelketa jokatu baita Ruperto Casanuevaren omenez.

Alabaina, "gaztaren V. herri lehiaketa" ere egingo dute; 10:00etatik 13:00etara izango da hori. Prozesua gertutik ezagutu nahi dutenentzat, ostera, tailerra egingo dute eguerdikohamabietan.

Ardiei ilea mozteko 2 teknika

Segidan ilea mozteko bi teknika erakutsiko dituzte: tradizionala eta Zelanda Berrikoa.

Artzainen ongi etorri ekitaldia, berriz, 11:30ean izango da, eta 13:30ean egingo zaie Arabako artzainei omenaldia, lana eta ibilbidea aitortze aldera.

Antolatzaileek jakinarazidutenez, txapelketa guztien sari banaketak 13:30ean izango dira, ardi jana eta dastaketarekin batera.

Arratsaldean, aldiz, Artzain txakurren XIX. lehiaketa gauzatu dute, Justo Furundarenaren memoria hain zuzen.

"Herriarguztiei die egiten diegu jantzi tradizionalekin jantzita etor daitezen. Partaide guztien artean baserriko produktuak zozketatu dira", adierazi dute antolakuntzako kideek.

elkarlan asesores
www.elkarlan.eu

Foru kalea, 2. **AMURRIO**.

Tel 945 39 33 51

Lamuza, 12. **LAUDIO**.

Tel 946 72 74 28

Torre de Ugao, 12. **UGAO**.

Tel 946 03 91 65

Aholkularitza: Lanekoa, fiskala, kontabilitatekoa eta juridikoa

www.elkarseguro.com



Amurrio

Lana bilatzeko hileko 600 eta 800 euro bitarteko bekak eskainiko ditu Udalak

Refor enpresaldean eman behar da izena. Aiaraidea.eus

Testua
Aitor Aspuru Saez

Amurrioko Udalak hirugarren urtez jarraian abiatuko du, Amurrio Bidean Sozietate Publikoren bitartez, praktiketako Hazilan prestakuntza programa. Helburua da goi gradutik gorako ikasketak dituzten gazteei prestakuntza eta lan aukerak eskaintzea. Programaren aurkezpena irailaren 24an egingo da, 10:30etik 11:30era, Refor Amurrio Enpresaldean, eta urriaren 1ean hasiko da. Hazilan 2 fasetan osatuko da, prestakuntza eta praktiken edo proiektuaren garapenaren bitartez.

Prestakuntza fasean, coaching bitartez, lanpostuetan eskatzen diren trebezia sozio-profesionalak landuko dira, baita "marka pertsonala" sortzeko edo ezagutarazteko tresnak ere. Amaitze-

ko, partaideari enplegua bilatzeko prozesuan laguntzeko banakako saioak egongo dira.

Bigarren fasean praktikak egingo dituzte enpresetan, gehienez 6 ordu egunean, edo negozio baten bideragarritasun proiektuaren garapen gidatua, ideia abiatzeko. Fase horrek 4 hilabete iraungo ditu, abenduan hasiko da eta 2019ko apirilean amaitu. Epe horretan, 12 partaidek hileko 600€ eta 800€ gordin arteko beka jaso ahal izango dute. Laguntza horiek Amurrioko Udalarri eskatuko zaizkio. Europako Gizarte Funtsak %50ean finantzatzen du ekimena.

Kalitatezko enplegua bilatu nahi duten lagun orori dago bideratuta, baita lehen enplegua bilatzen ari direnei eta euren lanean aldaketa egin nahi dutenei ere. Programan parte hartu nahi dutenek 20 eta 44 urte ar-

teko adina izan beharko dute, eta goi gradutik gorako prestakuntza zikloko ikasketak (CFGs, gradua, diplomatura, lizentziatura, ingeniari-tza, arkitektura...). Alabaina, lehentasuna izango dute Amurrioren erroldatuta daudenek. Horrez gain, partaideek enplegu bilaketa egoeran egon beharko dute eta, euren partaidetza, gehienez ere, asteko 20 orduko kontratu batekin bateratu. Programa urriaren 1ean hasi eta abenduaren 3an amaituko da, goizeko 09:00etatik 14:00etara. Praktiken ordutegia enpresarekin adostuko da, baina proiektua garatzeko libre izango da. Nahi duenak areto bat izango du Haztegian edo Enpresa Zentroan.

Informazio gehiago jasotzeko edo izena emateko, harremanetan jarri beharra dago Amurrio Bideanekin, edota empresa@amurriobidean.org helbidean.

12.000 EURO LAUDION ETA AMURRION EROSTEAGATIK!



**2000€-ko
6 sari
goiz batean
gastatzeko!**

ZOKETAREN DATAK: LAUDIO: IRAILAK 21, URRIAK 11 ETA URRIAK 31.
AMURRIO: IRAILAK 17, URRIAK 1 ETA URRIAK 22.

INFORMAZIO GEHIAGO:
www.apymca.com / www.laudiocomercial.com

LAUDIO
COMERCIO Y OCIO

APYMCA

AMURRIOKO
MURKATUARI ERTEN ETA
TUNKEN ELKARTEA,
JAKIN E BIZI
PIAN E PAU Y TEBERAN
GOSERANTZEN DE JABE BIDE

Euskadi, nazionala, biziarekin
RISKO JARMARITZA
GOBIERNO VASCO

herriz herri

Okondo

Itzalde erreka kutsadura ikertu bitartean, ez bainatzeko gomendioa luzatu du Okondoko Udalak, Eusko Jaurlaritzako Arabako Osasun Sailaren irizpideei jarraiki. Izan ere, 5 gazte

ospitaleratu dituzte azken asteetan leptospirosis gaixotasuna izan lezaketelakoan. Osasun frogak egin dizkiete guztiei, eta kasu bat baieztatu dute, gaur-gaurkoz.

Leptospirosis bakterioaren “brotea” ikertzen dabilta



Itzalde errekan bainatzearren gaixotu dira herriko 5 gazte. Aiaraldea.eus

errekan ez sartzeko gomendioa. “Ez da udalaren eskumena, Eusko Jaurlaritzaren erabakia da, erreka ez baita udalarena”, adierazi du Okondoko Udalak.

Proben emaitzak

Erakundeek ez dute leptospirosis topatu errekan, baina probak egin dizkiete gaixoei. Izan ere, hasiera batean lau izan ziren ondoezik ingesatutako gazteak. Bosgarren bat, ordea, larrialdi zerbitzuetan artatu zuten abuztuaren erdialdean, baina ez zen ospitalean geratu behar izan. Handik astebetera, ordea, gaizki zegoela-eta, erietxera itzuli behar izan zen, eta ingesatu egin zuten. Guztien osasun egoera egonkorra da.

Eritasunari dagokionean, 5-14 egun bitartekoa da inkubazio aldia, nahiz eta hilabetera ere luza litekeen. Sintomak honakoak dira: sukarra, hotzikarak, mialgiak, zefalea eta abar. Alabaina, gorputzaren organoek huts egitea ere ekarri lezake, oso gutxitan gertatu bada ere. “Kasuen %90 oharkabean pasatzen da”.

Osagileen nabarmendu dute, modu horretako sintomak jasatekotan medikuarengana jotzeko, beharrezko osasun probak egite aldera.



Testua **Izar Mendiguren Cosgaya**

“Nor ez da bainatu Okondoko Itzalde errekan? Edonor izan zitekeen kutsatua”. Esaldi eta kezka hori bolo-bolo ibili da azken asteetan Okondon zehar. Izan ere, duela hiruzpalau aste 4 gazte

ingesatu zituzten Galdakaoko erietxean antzerako sintomekin: sukarra, hepatomegalia, pielonefritisa, miokarditisa eta abdominaletako mina. Horietako bati bihotzean oztupoak eragin zizkion infekzioak.

Eusko Jaurlaritzak leptospirosis bakterioak eragindako

agerraldia ote den ari da ikertzen. Gertaeraren berri jaso bezain pronto abiatu zuen ikerketa Osasun Sailak.

Era berean, Arabako Departamenduak aginduta, Okondoko Udalak ezarritako prozedura bete zuen: uraren kalitate ona bermatu arte

Ikerketa frogak kutsatutako kasu bat behintza baieztatu dute oraingoz

KIROLARIENTZAKO EKIPAMENDUAK

FUTBOLA, SASKIBALOIA, ... ///
GALTZAK, KAMISETAK, TXANDALAK,
IZERDITAKOAK, ZIRAK, POLTSAK, ... ///

KOLORE ETA MODELO ANITZ.
MARKAKETA TEKNIKA EZBERDINEKIN
PERTSONALIZATUAK:
SERIGRAFIA, BORDATUA, BINILOA,
INPRESIO DIGITALA, ...



G! Graf!k

PRODUKTU PROMOZIONALA
JANTZI ZERBITZUAK
MARKA KUDEAKETA///

Telleria 2, LAUDIO
94 672 65 43
pro@grafiksarea.com
www.grafiksarea.com

Artziniega

Herritar eta elkarteek uko eginda, udalak antolatuko du aurtengo Antzinako Azoka

Egun osoko jai giroa egongo da aurtien ere Artziniegako Antzinako Azokan. AiaraIdeia.eus

Orozko

Positiboki baloratu ditu udalak San Antolin Jaiak

Zezen plazak jendetza batu du. AiaraIdeia.eus

Testua
Izar Mendiguren Cosgaya

Erdi Arora itzuliko da Artziniega irailaren 15ean. Orain arte, herritarrek, elkarteek eta Udalak antolatzen zuten azoka. Aurtien, baina, bilera irekia deitu zuten ekintza prestatzeko, baina ez zen inor azaldu. Hori dela eta, tokiko erakundeak hartu du bere gain ekintzaren prestaketa osoa.

Iñigo Gomez alkateak azaldu duenez, goizean goizetik artisauez beteko da Alde Zaharra, gaueko bederatziak arte. Kale animazioa ere egongo da, Builaka batukada, besteak beste. Arratsaldean, berriz, kale antzerki ibil-

taria egongo da: "20 minutuko ikuskizuna eskainiko dute Alde Zaharreko toki ezberdinetan".

Berrikuntza ugari

Alkatearen esanetan, ez da hori izango aurtengo berrikuntza bakarra: "Erdi Aroko damen inguruko erakusketa ekarriko dugu, eta jendeak lehengo lanbideak ezagutzeko parada izango du: zaldiekin lan egingo du errementari batek zuzenean kalean bertan, ardiei ilea moztuko diete...".

Umeen eskaintzan sakontzeko ahalegina egin dute. Goizean, esaterako, poniak egongo dira, "animalien gainean ibiltzeko". Gainera, giroan buru-belarri sar-

tzeko Erdi Aroko jantziak eskuratu ahalko dituzte tarte batez, iraganeko janzkera eta bizimodua lehen eskutik ezagutzeko.

Tailer sorta ere prestatu dute, "baita Erdi Aroko dantzak ere". Ohiko jarduerak ere aurreikusi dituzte: "Alañaren adar erakustaldia, Lafraguaren ekarpena...".

Feria kudeatzeko Nafarbidetza enpresa kontratatu dute, "beti bezala". Izan ere, urteak daramatzate ekimenean postuak jarri eta ekintzak antolatzen.

Urtero modura, ekimena prestatzeko Aiarako Kuadrillaren babes ekonomikoa jaso du tokiko erakundeak, baita Arabako Foru Aldundiarena ere.

Testua
Izar Mendiguren Cosgaya

Jai Batzordearen balorazioaren faltan, oharra plazaratu du Orozkoko Udalak herritarren parte hartzea eskertzeko.

Josu San Pedro alkateak nabarmendu duenez, eguraldia lagun izan dute, eta ez da eraso matxistarik salatatu. Horrez gain, larrialdi zerbitzuek ez dute aparteko lanik izan.

Gobernu buruak "oso positiboki" baloratu ditu aurtengo jaiak, antolatutako ekintzetan partaidetza handia egon dela azpimarratuta: "Ekintza guztiak aurreikusita zeuden moduan eta behar

bezala garatzeko aukera eskaini digu eguraldi onak", erantsi du. Horrekin lotu du herritarren erantzuna, jendea gehiago animatu baita jardueretan parte hartzera: "San Antolin egunean nabaritu da hori bereziki".

Udalaren ustez, musika emanaldiak izan dira lagun gehien bildu dituzten ekitaldiak, nahiz eta zekorketek arrakasta handia lortu.

Dena den, objektu zorrotzak jaurtitzeagatik pertsona bat artatu behar izan zuten osagileek, igerilekua "erasotu" baitzuten. Hori dela eta, gaitzetsi egin ditu Orozkoko Udalak "ekintza bandalikoak".

Aiarako AEK

Laudio, Amurrio, Orozko, Okondo, Aia, Artziniega eta Urduña

- Aurrez-aurrekoak: maila eta ordutegi guztiak
- Autoikaskuntza tutore eta mintza-soioekin
- Mintzamina lantzeko ikastaroak
- Titulu ofizialak A1-A2-B1-B2-C1/EGA

Laudioko AEK

Zubiak 5 945 726 722 / 663 194 177 laudio@aeak.eus

Amurrioko AEK

Etzegainbide 8 945 892 334 / 663 076 240 amurrio@aeak.eus

Urduñako AEK | Kultur-etxea | 607 678 079

Diru-laguntzak

EUSKO JAURLARITZA

ARABAKO ETA
BIZKAIAKO ALDUNDIA

LAUDIO, AMURRIO ETA
URDUÑAKO UDALAK

aeak euskara
praktikoa

Zu hemen zaude, AEK ere bai

100 euskaltegi baino gehiago Euskal Herri osoan



EUSKARA-IKASTAROAK

herriz herri

Aiara

Babion Burdin Aroko herrixka gotortuko indusketen emaitzak aztertzen ari dira



Babioko indusketan hartu dute parte Aranzadiko kideek. Jon Obaldia

Testua
Aitor Aspuru Saez

Uztaila amaieran eta abuztu hasieran arkeologo talde bat Babio mendian aritu zen, bertako herrixka gotortua industen. Printzipioz, K. a. IX. mendekoa da aztarnategia, baina udakoa izan da bertan egindako lehen lan zientifikoa.

M. J. Yarrituk, J. Gorrotxategik eta J. L. Martinezek topatu zuten 1981ean aurkikuntza, eta Felix Murgak eman zuen horren berri hurrengo urtean. Ezaugarriei dagokienez, defentsa sistemak 10 hektarea ditu eta bi hesiz osatuta dago; batek 560 metroko luzera du eta besteak 234 metro.

Babesik ez

Urte luze horietan inork ez duenez lekua aztertu, babes ofizialik ez du eskuratu egitasmoak. Ondorioz, kalte ugari eragin dituzte. Esaterako, hesien artean ibilgailuen sarrerak egin dituzte.

Txikizioak aurrera egin ez dezan, Aztarna elkarteak hasi zen indusketa proiektua sustatzen, eta Jon Obaldia Aranzadi zientzia elkarteak kideak hartu zuen bere gain erronka. Azkenean,

Babio mendian Kristo Aurreko IX. mendeko aztarnategia industen ari dira. 1981. urtean aurkitu zuten, eta babes ofizial ezagatik gaur arte ez dute eremua ikertu

elkarteko 3 adituk eta 6 ikaslek gauzatu dute ekimena.

Aiarako Udalak eta Izoriako Administrazio Batzarrak ordaindu dituzte lanak. Horien xedeak izan dira ondarearen egoera ebaluatzea, kalteak neurtzea, bertako aztarnategiaren berriematea eta babes ofiziala eskuratzea.

Boluntarioek 8 labin hartu zituzten eta hesi bat garbitzeari ekin zioten. Uztailearen 29an hasi ziren eta abuztuaren 4an bukatu zuten. Orain ari da Jon Obaldia aztertzen jasotakoa eta ondorioak publiko egingo ditu ahal bezain laster.

Proiektuaren helburuetakobat da ondarea ezagutzea, babestu dezaten. Horretarako, lehen urratsa indusketetan egin zuten. Uztailearen 31n bisita gidatuak eskaini zituzten, baita arrakasta handia lortu ere. Guztira, 70 lagunek parte hartu zuten.

Ikasturte berriarekin gutxienez bi hitzaldi emango dituzte, Izoriako Txokoan eta Aiarako Udaletxean, hain zuzen.

Finantzaketa egonez gero, Obaldiak aurreratu du kanpaina berriro antolatzearekin ekingo diotela, ikerketarekin eta zabalpenarekin jarraitzeko.

Arrankudiaga-Zollo

Parte hartze bidez ari dira egiten “herri bideen inbentarioa”



Arrankudiaga-Zolloko bideak aztertuko dituzte. Aiaraldea.eus

Testua
Izar Mendiguren Cosgaya

Bide publikoen atala osatzeko helburuarekin heldu dio Arrankudiaga-Zolloko Udalak bideen inbentarioa eguneratzeari. Bertan bildu nahi dituzte ibilgailuentzako guneak, tradiziozko zoladura gabekoak edota oinezkoenak; gurdibideak eta bide-zidorrak barne. Hala zehaztu du Itziar Duoan-dikoetxea alkateak.

Egitasmoa gauzatzeko Sendoa S.L enpresaren zerbitzua kontratatu dute. Ikerketak 8 hilabete iraungo ditu orotara, eta metodo historiko-geografikoa baliatuko dute, “auzokideen interesak eta ekarpenak jasotzeko”.

Parte hartze prozesua

Hala, udan egin zuten aurkezpen publikoa: “Jende asko gerturatu zen”. Aurkezpenetik, auzokide guztiei egin diete parte hartzeko deia, ekimenean interesa dutenen parte hartzea garrantzitsua dela iritzita.

Horietakobat da Txutxi Ariznabarreta zolloarra. “50eko hamarkadan egin ziren katastro lanak. Diputazioko zein herritarrek emandako dokumentazio zaharrak berrikusiko dira orain. Auzoz auzo, adineko jendearekin egingo dira kontrasteak. Udazkenean izango

da hori, edadetuen parte hartzearekin”, zehaztu du.

Modu horretan osatuko dute lehen zirriborroa, bilerak irekian aurkeztu eta kontrastatzeko. Ondoren onartuko du behin-behineko egitasmoa udalak, alegazioetarako tarteari bide emateko segidan.

Onurak

Egitasmoaren onurak zeintzuk diren galdetuta, argi du Ariznabarretak: “Auzokideen gatazkek -bide mozketak, lurrrak ixteko baimenak eta abar- udalean bukatzen dute, eta orain arte zehaztu gabe zegoen bide batzuen izaera. Erreminta honekin irizpideak argiago egongo dira, katastroak nagusiki lur mota eta zergei eragiten baitie. Hutsune normatiboari erantzun nahi diogu honekin”, erantsi du Ariznabarretak.

Abendurako amaitua

Gainera, aisialdi erabilera ere areagotu egin da, Ariznabarretaren ustez: “Geroz eta kirol proba gehiago daude, eta bideen erabilera baimena lortzea errazagoa izango da horrela. Traila antolatzeke edota mendiaz aisialdian gozatzeko, kasu”.

Abenduan aurreikusitako dute bukatzea egitasmoa, et aorduan aurkeztuko dute publikoki emaitza.

iritzia

Nor da piztia?

Mendia edo hondartza. Hegazkina edo itsasontzia. Jaia edo lasaitasuna. Garagardoa edo freskagarria. Bakea; edo ez. Udari agure satear gaude, baina lasaitasunezko eta gozamenezko denboraldi honetan, badaude oporrik hartzen ez dutenak ere.

Emakume bat erail dute Uharten. Bortxaketa Donostian. Sexu eraso salaketak Gasteizen eta protokolo aktibazioak Bilbon. Dozenaka titular Euskal Herriko jai giroen inguruan. Hortaz, jaigune, oholtza eta plazak aldarrikapenerako bozgorailu lez erabiltzen ditugu, noizbait entzungo gaituzuelakoan gaudelako.

Haragi puska naizela edertasunaren mesedetan? Mundua, gurea ere bada. Gure gorputzak, nahiak eta eskubideak zapaltzen dutenak dira pizti bakarrak. Ukatzen zaiguna irabaztera gatoz, kaleak eta gauak, gureak ere badirelako. Ez garelako hiltzen, hiltzen jarraitzen gaituztelako.

Pertsona zuriek beltzei ez diegu ezer asko oparitu historian zehar. Are gutxiago, nagusiak langileari. Estatu eta botereek, herriak eta komunitateak zapaltzen jarraitzen dute, euren erabakitzeko eta izateko eskubideak urratuz eta zapalduz. Erasotuak garen bitartean, erantzuteko eta autodefendatzeko deia egingo dugu, beltza dena more bihurtzeko. Ez garelako hiltzen, hiltzen jarraitzen gaituztelako.



IXONE COLLADO URKIJO
Mugimendu Feministako kidea



ENEKO GASTAKA
Politologoa eta soziologoa

Ez badituzue ikusi, ez daude?

Tsss... PUM! Hasi dira 2018ko Laudioko Jaiak, gaseosa artean eta eguzkipean. Eta horrekin batera, heldu dira kalejira, kontzertu eta jolasak. Baina, modu berean, martxan da eraso matxistak “erraztu” eta askotan ikusezin bihurtzen dituen giroa ere.

Akatsa litzateke esatea eraso horiek jaien testuinguruan bakarrik ematen direla, baina San Ferminetako azken kasu mediatikoak argi uzten du bereziki adi egoteko momentua dela. Laudion ere badaukagu gure “manada”. Kartel eta margoketa feministei buruzko komentarioekin hasita, kale horietan bertan ematen diren eraso zuzenetara arte.

Gehienetan jarrera horiek ikusezin egiten zaizkigu, normalizat hartu eta mespretxatzen dira. Erasotzaileak, bere burua salatua ikustean; ustezko errugabetasuna eta zintzotasuna aldarrikatu eta babesten tematu ohi da. Maskulinitate matxistaren erantzun tipikoa. Aurrez aurre izan ditugu aurtengo jaietan ere, ez behin, ez birritan.

Sare sozialetan, itxuraz umoretsua den eta praktikan eraso matxistak justifikatu eta borroka feminista gutxien duen komentarioan, eta zuzenean, haren pribilegioen bidez emakumeak objektutzat hartuz “ligatzen” saiatzen den gizonean. Nire pribilegioetan. Ez alkohola, ez drogak, ez gona laburrak, ezta ustezko gonbiteak ere; ez dago aitzakiarik eraso matxista baten aurrean, ez jaietan ezta gainontzeko urteko egunetan ere.

“Ukatzen zaiguna irabaztera gatoz, kaleak eta gauak gureak ere badirelako. Ez garelako hiltzen, hiltzen jarraitzen gaituztelako”

“Laudion ere badaukagu gure manada, kartel eta margoketa feministei buruzko komentarioekin hasi eta kale horietan ematen diren eraso zuzenetara arte”



GALDERA

Jaietan eraso matxistak gertatzen direla uste duzu?



Lara
Abokatua

Bai, eraso eta jarrera matxistak oso gauza estrukturala dira gizartean. Estrukturala izanik jaiak ez dira erasoen oinarria, baina aitzakia perfektua dira akosatzailearentzat.



Jorge
Soinu-teknikaria

Bai, askotan igarri ez arren presente daude eraso eta jarrera matxistak, asko gainera. Gu guztion ardura da kontzientzia hartu eta eraso horiek identifikatzea.



Asier
Anbulantzia gidaria

Bai, erasoak beti daude hor, gure inkontzientean dagoen matxismo horretan. Nahiz eta sozialki ez onartu, eraso sexistak egunerokoan eta modu agerikoan daude.



Andere
Hezitzailea

Orokorrean geroz eta eraso gutxiago daudela uste dut. Jaien testuinguruan, ordea, areagotu egiten dira, jendea edanda dagoenean.



Iragan igandean -irailak 9- 81 urte bete ziren Manuel Murias Diaz de Cerio Larrinagako kartzelan fusilatu zutenetik. Oso gaztea zela joan zen Urduñara bizitzera, eta hiriko alkatea izan zen Guda Zibilean, denbora tarte labur batez. Bilbo Frankisten esku erori eta gutxira atxilotu eta heriotza zigorrera kondenatu zuten. Azken unean indultatua izan zen arren, exekuzioa azkartu egin zuten indultua kartzelara garaiz ez iristeko.



Manuel Murias Diaz de Cerio, Urduñako futbol zelaian. **Murias sendia**

Manuel Murias, frankistek fusilatutako alkate urduñarra



Testua **Txabi Alvarado Bañares**

“Hilketarik egin ez dutenak indultatzen dituztela diozu. Ba, azken hiru egunetan 40 ‘santu’ erail dituzte. Gaur goizean nire zeldara deitu dute eta jada eramango nindutela pentsatu dut. Baina kide bati egokitu zaio: Galdakaoko 29 urteko mutil nazionalista bati. Oso mutil ona zen, ez dut gehiago jarraitu nahi”.

Manuel Murias Diaz de Cerio urduñarraren hitzak dira horiek, irailaren 7an Larrinagako kartzelagutun batean idatzitakoak. Handik bi egunera fusilatu zuten.

Bizpahiru hilabete baino ez zituen eman preso, baina senideei 45 gutun idaztera iritsi zen. Idazki horiek eta beste hainbat informazio iturri baliatu ditu bere semeak -Manuel Murias Olabuenagak bere aitaren biografia osatzeko.

Algortan jaio zen Manuel Murias Diaz de Cerio, 1903. urtean. “16-17 urte zituela etorri zen Urduñara, lan bila”, azaldu du. Zapata fabrika batean sartu zen. “Urduñan oinetako fabrika asko zeuden, 10 tailer txiki egon ziren. Ez zegoen mekanizaziorik, eta persona asko behar ziren zapatak egiteko”.

Modu horretan ezagutu zuen bere emaztea izango zena: Alberta Olabuenaga. 1929. urtean ezkondu ziren, eta handik gutxira atondu zuten elkarrekin zapata tailer propioa, belaunaldiz belaunaldi igaro zena, 1998. urtean -Manuel Murias Olabuenaga erretiratu zenean- itxi zuten arte.

Athleticen proba egitear
Kirolzale amorratua ere bazen Murias. Urduñako futbol taldean jokatzen aritu zen hainbat urtez.

Jaiotzez algortarra izan arren, nerabea zela joan zen Manuel Murias Diaz de Cerio Urduñara bizitzera. Zapatari lanetan aritu zen, baita Urduñako futbol taldean ere

Frankistek Urduña erasotu zutenean izendatu zuten Murias Diaz de Cerio alkate. Hilabete bakan batzuk eman zituen gobernuan, baina alkateordea izan zen gerra amaitu arte

“Athleticen proba batzuk egitea proposatu zioten”, oroitu du bere semeak, “baina kirola utzi behar izan zuen, lesio bat zela eta”.

Ideologia politikoari dagokionez, EAJren aldekoa zen zapatari gaztea. “Baina bazuen justizia sozialarekiko bokazioa, eta agian horregatik -eta garaiko testuinguruagatik- idazkari gisa hasi zen Urduñako Talde Errepublikarrean”.

Guda Zibilean alkate
Handik gutxira jazo zen Frankoren altxamendu militarra. Garai hartan Urduñako Udalak zazpi zinegotzi tradizionalista eta 4 zinegotzi jeltzale zituen. Estatu kolpea eman zenean tradizionalistek alde egin zuten, eta udalbatza berria osatu zen, Bizkaiko gobernadore zibilaren aginduz. “Udalbatza berria osatzeko ekitaldira bertaratu zen gobernadorea, Guardia Zibilaren zonaldeko buruarekin batera”.

EAJ jatorrizko lau zinegotziei Fronte Popularreko beste lau batu zitzaizkien, Murias tartean. Segundo Echeguren izan zen lehen alkatea, baina ez zuen asko iraun karguan. “1936ko abuztuaren 4an hiriaren inbasioa gertatu zen. Jende armatu ugari jaitsi zen Barrerillatik eta Peñaviejatik, hiru talde guztira”.

Une horretan hautatu zuten Murias alkate. Hiria babesteko sortutako Defentsa Juntaren buru ere izendatu zuten. Hilabete bakan batzuk egon zen gobernuan, urrira arte. “Orduan Eusko Jaurlaritza osatu zen, eta udala aldatu, zortzi zinegotzi izatetik hamaika izatera igaroz”. Hala, Miguel Salazar Pinedo izendatu zuten alkate eta Muriasek alkateor-

de gisa jarraitu zuen.

Urduñako Udala Bilbon
Frankistek Urduña hartu zutenean jende askok Bilborantz jo zuen. Bertara joan ziren baita ere udal ordezkariak, eta euren ardurerekin jarraitu zuten Marqués del Puerto kalean, hiriburua frankisten menpegeratu zen arte. Alabaina, semeak ez daki aita noiz atxilotu zuten, baina handik gutxira izan zelakoan dago, “uztaila partean”.

Larrinagako kartzelan sartu zuten, eta bertan egon zen fusilatua izan arte. “Guardia Zibilak eta Urduñako frankista batek salatu zuten”, azaldu du semeak, “oso maitatua zen Urduñan, kaleko jendearen aldetik, batez ere. Baina kazikeek ezin zuten jasan. Nik neuk pairatu izan dut aberatsek pobreakiko gauzatzen zuten zapalkuntza hori. Toki guztietan pasatzen da hori, baina Urduñan batez ere”.

Ez dago epaiketaren gaineko informaziorik: “alkatea eta Defentsa Juntako burua izatea aski izan zen, gudan inplikazio askoz gutxiagoa izan zuen jende andana erail zuten”.

Erlojupeko lasterketa
Orduan hasi zen bere bizitza salbatzeko erlojupeko lasterketa. Prozesu horretan berebiziko garrantzia izan zuen Alberta Olabuenagak -bere emazteak- eginitako lanak. “Aitarentzako jarrera oneko ziurtagiriak eskuratzeari ekin zion eskumako jendearen artean. Sinadura ugari biltzea lortu zuen, aitzak lagun asko

Azken unean indultatu egin zuten Manuel Murias. Baina orduan norbaitek exekuzioa azkartu zuen, indultua kartzelara iritsi baino lehen gauzatu zedin. Irailaren 9an fusilatu zuten Urduñako alkatea izandako gaztea, Larrinagan

zituelako eskumako sektoreen artean baita”. Udalera jo zuen orduan Olabuenagak, eta alkateak esan zion modu ofizialean bidaliko zituztela ziurtagiriak, epaiketan eragin gehiago izan zezaten. Sinadura horiek, baina, ez ziren inoiz iritsi, bi dokumentu baino ez ziren aurkeztu epaiketan, Manuelek adierazitakoaren arabera. Gauzak hala, heriotza zigorrrera kondenatu zuten.

Auziaren berrikuspena lortu zuen gero, baina zigorra berretsi zuten. Salamancara jo zuen orduan Olabuenagak, garai hartan

bertan baitzegoen Estatu Nagusi Zentrala. “Marcos Telleria koinatuarekin joan zen, ideologia eskuindarreko persona entzutsua”. Bertan kapitain nagusi batekin hitz egin zuten. “Jende asko indultatzen ari zirela esan zien militarrek, eta euren esakera jaso zuen”, aipatu du familiako kideak.

Indultua eta exekuzioa
Eta hala izan zen: heriotza zigorrera kondenatutako urduñarraren indultua egon zen. “Baina norbaitek presa sartu eta aita fu-

silatzeko agindua eman zuen”. Indultatuta zegoela erail zuten, beraz. Gaur egun, bere aita “fidakorregia” izan zela uste du Murias Olabuenagak. “Bera izan zen ihes egin ez zuen bakarra. Udalekogainontzeko kargu politikoei erbeste-tera jo zuten, Mexikora, Venezuelara edo Frantziara, besteak beste”.

Handik urte batzuetara, paper eta tramite asko egin ostean, gorpua Urduñara eramatea lortu zuten senideek. Egun, bertan dago lurperatuta.

Bere heriotzak hutsune han-

dia utzi zuen eta familia zoritxarreko egoeran geratu zen, gainera. Emazteak bi seme zituen eta hirugarrena bidean zegoen. Horrez gain, zapata lantegiaren ardura bere gain hartu behar izan zuen emakumeak.

Bere azken gutunean Manuel Muriasek eskatu zion Alberta Olabuenagari azaltzeko seme-alabei eraila izan zela.

Halaber, erregutu zion argitzea asko maite zituela eta etorkizunean jakin beharko zutela etesaiak barkatzen, berak barkatu baitzituen hil baino lehen.



Manuel Murias Diaz de Ceriori plaka bat oparitu zioten lesio baten ondorioz futbola utzi behar izan zuenean. **Aiaraldea.eus**



Manuel Murias -baloia duen kideari helduta- Urduñako futbol taldeko gainontzeko kideekin. Ezkerrean, Larrinagako espetxeko eta Urduñan eginiko omenaldi bateko irudiak. **Murias sendia, Jon Aurtenetxe eta Txeng Meng**





agenda

2018/09/12

2018/09/26



Nerbioi Arroako Txistulari

topaketa egingo dute Urduñan

“Nerbioi Arroako txistulari topaketa” antolatuko Urduñako Getxa Goi taldeak. Hori dela eta, egitarau oparoa prestatu dute irailaren 20tik 23ra. Ekintza gehienak Alondegian izango dira, 19:00etan. Aurreneko z jasoko du eskualdeko Nerbioi haraneko topaketa.

Datorren ostegunean -irailaren 20an- izango da lehenbiziko jarduerak: topaketen aurkezpena eta “Hiru zulodun flautaren eboluzioa Euskal Herrian” hitzaldia.

Ostiralean, berriz, “Txistulari edo danbolinjolea” hitzaldi parte hartzailea egingo dute; Sabina Bikandi Belandiarren eskutik.

Larunbatean Getxa Goi Txistulari taldearen kontzertua izango da ekintza nagusia, 19:00etan Alondegian.

Igandean, txistularien topaketa

Igandean elkartuko dira Nerbioi inguruko txistulariak Urduñan, topaketa antolatutako baitute.

10:30ean abiatuko dira tren geltokitik, 11:00etan Antzinako Ama santutegian Euskal Herriko Txistulari Elkartearen 90. urtemuga ekintza egiteko.

Eguerdian pilatuko dira ekintza gehienak: 12:00etan jaitsiko dira hirira kalejiran, eta 13:00etan kontzertua eskainiko dute Foru plazan. Herri bazkariak eta Getxa Goik prestatutako erromeriak giroa du arratsaldea. Elkartetik bertaratzeke gonbita zabaldu dute.

MUSIKA

09.14
Ostirala
22:00 AUDIO
LATIORROKO JAIK
Sabin Guaresti eta Zirkiniak
bez erromeria
Txosnagunean

09.15
Larumbata
20:30 ARRANKUDIAGA
ATXETAKO JAIK
Dantza plaza, Patxi
Perezekin
Atxetako plazan

09.15
Larumbata
22:30 ARRANKUDIAGA
ATXETAKO JAIK
Puro Relajo
Atxetako plazan

09.15
Larumbata
22:00 AUDIO
LATIORROKO JAIK
Ze Esatek eta Hilean Bariku
Bat
Txosnagunean

09.16
Igandea
12:30 ARRANKUDIAGA
ATXETAKO JAIK
Nafarroa Kantu Taldea
Atxetako plazan

09.22
Larumbata
19:00 URDUÑA
TXISTULARI TOPAKETA
Getxa Goiren kontzertua
Alondegia

09.23
Igandea
13:00 URDUÑA
TXISTULARI TOPAKETA
Nerbioi Arroako txistularien
kontzertua
Foru plaza

09.23
Igandea
19:00 URDUÑA
TXISTULARI TOPAKETA
Erromeria Getxa Goi
taldearekin
Foru plaza

ANTZERKIA

09.14
Ostirala
19:00 AUDIO
LATIORROKO JAIK
Umeentzat antzerkia
Eskutxi plazan

09.15
Larumbata
12:30 ARRANKUDIAGA
ATXETAKO JAIK
Marmitako eta tortilla
txapelketa
Atxetako plazan

09.16
Igandea
09:00 AUDIO
LATIORROKO JAIK
Marmitako txapelketa
Kamaraka kalean

09.16
Igandea
12:00 OROZKO
GOIKIRIKO JAIK
Arrautzopili eta paella
txapelketa
Goikiri

09.16
Igandea
17:00 OROZKO
GOIKIRIKO JAIK
Irrintzi txapelketa
Goikiri

09.16
Igandea
19:15 ARRANKUDIAGA
ATXETAKO JAIK
XXIX. Igel txapelketa
Atxetako plazan

KIROL AISIA

09.15
Larumbata
06:00 ARRANKUDIAGA
MENDI IRTEERA
Monte Perdido
asteburupasa (Matxinkorta)
Arrankudiagako plaza

09.15
Larumbata
08:00 AUDIO
LATIORROKO JAIK
X.Mendi ibilaldia
Pagolar kaletik

09.16
Igandea
17:30 AUDIO
OXIGENOA EUSKARARI
Himalaiako espedizioa
babezteko txangoa Oñatira,
kontzertuak ikusteko
Autobus geltokitik

09.22
Larumbata
17:00 URDUÑA
MENDI DUATLOIA
Gazteen duatloia eta
proba nagusia
Foru plaza

Aiaraldeko Soinu Sistema “jo eta fuego”



Uda herririk herri iga rotzen dabil Aiaraldeko Soinu Sistema. Iraileko lehenbiziko bi asteburuetan Leketition, Bakion eta Artziniegan izan dira. Datozen asteburuetan, berriz, beste hiru emanaldi izango dituzte. Hurrengo kontzertua Sopuertako Letxugas jaialdian eskainiko dute; irailaren 14an, hain zuzen. Irailaren 29an, aldiz, Laudioko gaztetxean egongo dira.

Atxetako Jaiak ospatuko dituzte asteburuan



Irailaren 15ean eta 16an izango dira festak. Larunbat goizean umeentzat ekin-tzak egongo dira, eta “Jesus Gorostizagaren IX. memorialela”. Txapelketa gastronomikoaren baitan, marmitakoa eta arraultzopila prestatu beharko dute partaideek. Kontzertuak, dantzaplazak eta txapelketak izango dira nagusi. Igandean, esaterako, Nafarroa Kantu Taldea arituko da auzoa girotzen.

Goikiri, Drozkoarren jai geltoki



Aurreko asteburuan hasi ziren Goikiri jaiak, eta igande honetan -irailaren 16an- jarraituko dute. Hain zuzen, 12:00etan izango da meza. Jarraian ekingo diote Ubixetako dantzariak euren ikuskizunari. Gastronomia txapelketak ere izango dutarte; arraultzopileta paela lehiaketa antolatu baitute. Arratsaldean, txokolata jana, erromeria eta irrintzi txapelketa egongo dira.

Asteburuan izango dira Laudion Latiorro auzoko Jaiak



Ostiralean hasiko dira Laudion Latiorro auzoko jaiak. 18:00etan danborrada hotsek astinduko dituzte kaleak, 19:00etan txupina jaurtitzeko. 20:30ean antzerkia egongo da, eta gauean kontzertuak.

Larunbatean, berriz, mendi ibilaldia egongo dute, 8:00etan Pagolar kaletik abiatuta. Kamaraka kalean, aldiz, umeentzat tailer eta puzgarriak egongo dira, baita igel txapelketa ere. Eguerdian, ostera, herri bazkaria antolatu dute, eta bazkalosterako mus txapelketa aurreikusi dute, kontzertuekin jarraitzeko. Igandean, ordea, marmitako txapelketak beteko du auzoa.



“Aukeren azoka” antolatu dute Urduñako merkatariek

Urduñako merkatariek euren produktuak kalera aterako dituzte igande honetan. Hain zuzen, pagotxen azoka egongo da Foru plazan.

Goiz osoan jarriko dituzte postuak hirigunean, eta kale animazioa ez da faltako, Merkatarien Elkarteak aurreratu duenez. Haurrentzako tailerrak ere egongo dira.

09.16
Igandea
18:00 ARRANKUDIAGA
ATXETAKO JAIAK
Bakarrizketak Gemma Martinez eta Inigo Salinerorekin
Atxetako plazan

UMEENTZAKO EKINTZAK

09.15
Larumbata
11:30 AUDIO
LATIORROKO JAIK
Umeen tailerrak eta puzgarriak
Kamaraka kalean

09.15
Larumbata
16:00 ARRANKUDIAGA
ATXETAKO JAIK
Umeen ekintzak eta buruhandiak
Atxetako plazan

09.15
Larumbata
18:00 ARRANKUDIAGA
ATXETAKO JAIK
Magla ikuskizuna eta txokolatada herrikoia
Atxetako plazan

09.15
Larumbata
19:30 ARRANKUDIAGA
ATXETAKO JAIK
“Sardina Bakalau” Anita Maravillas konpainiarekin
Atxetako plazan

09.16
Igandea
18:00 TERTANGA
DOMEKERO
Txontxongilo tailerra
Eskolan

09.21
Ostirala
18:00 AUDIO
IPUIN KONTALARIA
“Hiru txerrikumeak”
Liburutegian

TXAPELKETAK

09.15
Larumbata
17:00 AUDIO
LATIORROKO JAIK
Mus txapelketa
Kamaraka kalean

09.22

Larumbata
08:00 AUDIO
FUTBOL PARTIDAK
Euskara eta futbola sustatzeko ekimena
Ellakuri zelaian

HITZALDIAK

09.17
Astelehena
18:00 AUDIO
EUSKARALDIA
Batzerdeen mintegia
Kultura Etxean

09.20
Osteguna
19:00 URDUÑA
TXISTULARI TOPAKETA
“Hiru zulodun txirula Euskal Herrian”
Alondegia

09.21
Ostirala
19:00 URDUÑA
TXISTULARI TOPAKETA
“Txistulari edo danbolinjolea” hitzaldi parte hartzailea
Alondegia

BESTEAK

09.15
Larumbata
10:00 ARTZINIEGA
ERDI AROKO AZOKA
Artisaauak, poniak...
Alde zaharrean

09.16
Igandea
11:00 URDUÑA
AUKEREN MERKATUA
Urduñako komertzioen azoka
Foru plaza

09.22
Larumbata
12:00 AUDIO
EUSKARALDIA
Aiaraldeko hamaikakoaren aurkezpena
Herriko plazan

INFO +
aiaraldea.eus

Kultura



Artziniega Museoa, bidegurutzean

Udalarena da museoa kokatua dagoen eraikina. Bertako bilduma, aldiz, Artea etnografia elkartearena da. Aiaraaldea.eus

Otsailean ekin zioten udalak eta Artea etnografia elkarteak museoaren finantziazioaren inguruan hitz egiteko bilerak egiteari. Museoa irekitzeko behar den dirua bermatzea eskatu dio elkarteak tokiko erakundeari. Iñigo Gomez alkateak, aldiz, “aukera jasangarria” bilatzen ari direla adierazi du.



Testua **Txabi Alvarado Bañares**

Kolokan dago Artziniega Museoaren gaur egungo funtzionamendua. Otsailean jarri zen harremanetan udala Artearekin, etnografia elkarte horretako kideak baitira museoa kudeatzeaz arduratzen direnak. “Artea elkarteak kontratatzen du museoko gida zerbitzua. Aurtun zerbitzu horren prezioan igoera bat jazo da, lan-hitzarmenaren aplikazioa dela eta”, azaldu du Iñigo Gomez alkateak. Horregatik bildu ziren, egoera horri nola aurre egin aztertzeko.

Baina hilabete ugari igaro dira ordutik hona, eta momentuz ez da bi aldeen arteko adostasunik erdietsi. “Gida zerbitzuaren lizitazioa ateratzea eskatu digu udalak, baina elkarte batek ezin du halakorik egin, erakunde publikoei dagokie. Guk bizpahiru aurrekontu

eskatu eta horietako bat hautatu ahaliko genuke gehien jota”. Hala azaldu du Mateo Lafraguak. Artea elkarteak kideak adierazi du eskaera bakarra helarazi diotela udalari: “Museoa irekitzeko beharrezko finantziazioa bermatzea. Hau da, Eusko Jaurlaritzaren edo Arabako Foru Aldundiaren laguntzetako batek kale eginez gero udala izatea beharrezko dirua jarriko duena”.

75.000 euroko kostua

Urtero 75.000 euro inguruko kostua dakar museoa irekitzeak, Artea etnografia elkarteak kideen hitzetan. “Gida eta garbiketa zerbitzuak ordaintzen dira diru kopuru horrekin”. Eusko Jaurlaritzak 30.000 euroko diru-laguntza ematen dio museoari horretarako, eta beste horrenbeste Arabako Foru Aldundiak. Udalak jartzen ditu beste 15.000 euroak. “Baina kopuru hori museoko sarreraren diruarekin berresku-

ratzen du, antzekoa izaten baita normalean”, azaldu du Lafraguak.

Gauzak hala, azken urteetan udalak museoaren irekierarako dirurik jarri behar izan ez duela nabarmendu dute Arteako kideak. “Egia da tokiko erakundea arduratzen dela museoaren mantenuaz, baina beste edozein eraikin publikorekin egiten duen bezala”. Museoan egiten diren ekintzak -Txarriboda, Udako Soltizioa...-, aldiz, Artea etnografia elkarteak finantzatzen ditu, bestelako diru iturriak baliatuta.

Soluzio bila

Hainbat aukera jarri dira mahai gainean arazoari aurre egiteko, Iñigo Gomez aburuz. Udalak museoaren abal-emailea izatea proposatu zen, baina alkateak baztertu egin du aukera hori, tokiko erakundeak funtzio hori bete ezin dezakeela argudiatuta. Beste au-

Udalak bi aukera jarri ditu mahai gainean: museoko bilduma bere esku uztea edo fundazioa sortzea. Artea elkarteak kideak, aldiz, museoaren irekiera bermatuko duen soluzioa eskatu dute

kera bat izango litzateke museo publiko bilakatzea. Hau da, udalarena izatera pasatzea. “Baina kasu horretan piezak udalari lagatzeko formula bat pentsatu beharko genuke”, nabarmendu du alkateak. Elkarteak kideak, baina, guztiz baztertu dute aukera hori.

Elkartearen eta udalaren arteko jabetza partekatua formula ere aztertzen ari dira, Gomez arabera. “Fundazio bat sortuta egin ahaliko litzateke hori”. “Oreka bilatzea” da tokiko erakundearen helburua. “Aukera jasangarria bat bilatzen ari gara, museoa berez defizitarioa dela jakin arren”.

Baina mahai gainean jarritako aukera horietako bat berak ere ez luke arestian aipatutako finantziazioa bermatuko, Lafraguaren aburuz. Arazoa ahalik eta lasterren konpondu behar dela nabarmendu du Arteako kideak, abenduaren 31rako nahi baitute gida zerbitzu berria kontratatuta. “Gidek

MUSEOAREN ZENBAKIAK

75.000
euroko kostua
dakar museoa
irekitzeak
urteko

30.000
euroko diru
laguntza bana
jasotzen du
museoak Eusko
Jaurilaritzaren
eta Arabako
Foru
Aldundiaren
eskutik

15.000
erreminta baino
gehiago ditu
Artea etnografia
elkartearen
bildumak

museoaren gaineko trebakuntza jaso beharko lukete, eta hori ez da bi egunetan egiten”.

Gauzak hala, akordioa lortzeko beharra nabarmendu du Arteako kideak, “onerako zein txarrerako”. “Erakunde guztiek diote Artziniegakoa dela Euskal Herriko museo onenetariko bat. Dirua emateko orduan, baina, ez daude horren ados”.

Museoa ez da itxiko

Hala eta guztiz ere, Artea elkarteak kideek ziurtatu dute ez dutela museoa itxiko. “Udalaren partetik finantziazioa bermatzeko konpromisoa lortzen ez badugu duela zenbait urte genuen funtzionamendura itzuliko ginateke, museoa larunbat eta igande batzuetan irekitzera mugatuz”.

Herriko ondarea eta kultura ezagutarazteko helburuarekin eratu zen Artziniegako Museoa 1984. urtean. Laster, beraz, 35 urte beteko ditu proiektuak; 2019an, hain zuzen. Baina, nola sortu zen? 70eko hamarkadan Artziniegatik hirira alde egin zuen jende askok, lanera. Ofizio eta bizimoduetan aldaketa handiak gertatu ziren. Hala, herriarrek ondare hori guztia ez galtzeko antzinako lanabesak bildu eta ondorengoei ezagutarazteko erakusketa egitea erabaki zuten. Hala, 1984an Artea Santutegiko zaldien kortan kokatu zen aurreneko museo zatia. Denborarekin, piezak ugaritzen joan ziren; egun, 15.000 erremintatik gora dituzte. Hortaz, herri museoa prestatzeko proiektuarekin bueltaka hasi ziren. Hala, Artziniegako esko-

la zaharra eskatu zioten Udalari. Horrela handitu zuten Artziniegako Museoa, herritarren pieza, istorio eta azalpenekin.

Iragana irakasgai

Arteako kideek ziurtatu dute museoa ez dela itxiko. Kasurik txarrean asteburu batzuetan irekitzera mugatuko lirake

Irakasgai zabala da Artziniegako Museoa, lehengo lanbide eta bizimodua barnebiltzen baititu. Hori dela eta, ikasgai aparta da bisitan hurbiltzen direnentzat, iragana eta historia gerturatzen baititu ikusleen begi eta belarrietara. Gida bat arduratzen da 17 geletako langintzak erakustiaz, 1.700 metro koadro baititu eraikinak.

Museo izatetik harago, eskualdeko biztanleen landa eta hiri bizitzaren ispilu da proiektua; horren adibide dira aretoetan banatutako ogibide eta aintzinako makinak. Halaber, urtean zehar makina bat jarduera antolatzen dituzte lehengo bizimodua gaur egungo jendearekin erakusteko: “herri oratzea”, txerriboda eta abar.

“Urduñako herri museoa” sortzeko lanak, abian



Kultura Etxean jarri nahi dute museoa. Aiaraldea.eus

Testua Izar Mendiguren Cosgaya

Bide Urduñako herri museoa sortzeko lehen urratsak ematen hasiak dira. Uda hasieran egin zuten aurkezpena Alondegian. Egun, elkarteak eratze bidean daude, proiektua garatzeko. “Txetxu Lanbarriekin batu ginen orduan, pribatuak diren tresnen jabeekin harremanetan jarri nahi dugu: aulkigintza, zapataria... Urduñan oso ohikoak ziren ofizio horiek”. Gaur egun ere, Alde Zaharreko kaleetan begista litezke aulkigintza dendak.

Erakusketa pieza edota bilduma gehienak, ordea, pribatuak dira. “Aintzinako ogibideen informazioa jaso zuen bere momentuan Adratane, lekukotzak bilduta abar. Guk informazio horrekin benetako museoa egin nahi dugu, jende aurrean aurkeztu eta ezagutzera eraman”. Urte

luzez Kultura Etxea izandako eraikina dute begitan museo bilakatzeko: “Oraindik ez dago hutsik, liburu mordoa daude; bulegoak zeudenez material asko atera behar da. Auzolan bidez egin nahi dugu hori guztia”. Ikara gutxi eta gogo asko dituzte, bistan denez: “Momentuz estatutuak sortuko ditugu museoa kudeatzeko, eta ondoren auzolanera deituko dugu, denon artean herri museoa eraikitzeko”. Ekimena saretzeko lantaldea martxan dute, “oraindik gauza asko zehazteko baditugu ere”. Helburua argi dute: antzinako bizimodua berreskuratzea. “Lekanda aulkitegia Burdin kalean dago, apaiz etxearen aldamenean. Material hori kulturgunera eramango bagenu, kalteak jasango lituzke akaso. Herrian bisitatzeko hainbat gune izatea gustatuko litzaiguke: aulkigintza lokal horretan, zapataria beste batean...”.



Makina bat ekintza antolatzen ditu Artea elkarteak museoan urtean zehar. Aiaraldea.eus

arrate

gestoria
aholkularitza
aseguruak

Iturralde, 2 Amurrio

info@arrategestoria.com
www.arrategestoria.com

Tel. 945 890 206

.....

kultura

6 bertsolari izango ditu Aiaraldeak Arabako Txapelketan

Testua
Txabi Alvarado Bañares

2019an izango da Arabako bertsolari txapelketa; alabaina, kanporaketak urrian jokatu dira. Hartara, finalerdiekin abiatuko da urte hasieran lehia. Aiaraldek sei bertsolari aurkeztu dira guztira: Serapio Lopez baranbioarra, Asier Rubio luiaondoarra, Izar Mendiguren laudioarra eta Ainhoa Comas, Unai Mendibil zein Iñaki Cabeza amurrioarrak. Mendiguren izango da aurrena kantuan, urriaren 20an. Andere Arriolabengoa, Unai Anda, Manu Bendala, Unai Gomez eta Aitor

Ugarte izango ditu bertsokide. Biharamunean -urriaren 21ean- Rubioren txanda izango da; Irati Anda, Unai Bengoetxea, Mikel Martin eta Markel Yollerrekin batera.

Mendibilek eta Cabezak elkarrekin izango dute saioa, urriaren 26an hain zuzen. Rikardo Gonzalez de Durana, Jon Ruiz de Pinedo, Xabier Antia eta Xabi Igoa izango dituzte aurkari.

Comasek, aldiz, urriaren 27an izango du zita; Peru Abarrategi, Jagoba Apaolaza, Oier Arbina, Aitor Najera eta Iñaki Viñasprekin. Azken kanporaketa arte itxaron beharko du Serapio Lopezek,

urriaren 28ra arte, hain zuzen. Felipe Zelaia, Martin Abarrategi, Aroa Arrizubieta, Beñat Garaio eta Xabi Ricorekin osatuko du saioa baranbioarrak.

Serapio Lopez, finalerdietan

Kanporaketetan sei lagunek abestuko dute, eta lehenbizikoek soilik eskuratuko dute finalerdietan aritzeko txartela. Gainontzekoek sailkapen orokorra itxiarte itxaron beharko dute lehian jarraitzen duten edo ez jakiteko.

Viñaspre, Igoa eta Lopez finalistek kanporaketetan ez dute puntuatuko, zuzenean sailkatuak baitaude bigarren fasera.

Detroit taldearena izan da lan onena

Testua
Izar Mendiguren Cosgaya

Artziniegako Rock elkarteak hirugarrenez antolatu du make-ta lehiaketa. Talde irabazleak asteburuan jo zuen Artziniegako festen barruan. Oraingoan, Enkarterrietako Detroit taldea izan da garailea. Aurten atera dute eu-

ren lehenengo diskoa: "Pirotec-nia".

Xabi Velle elkarteko kideak azaldu duenez, punk rock melodikoa lantzen dute. Sari gisa, 300 euro jaso zituzten. Ekarpeneko emakomikoa gain, zuzeneko emakomikoa baten bideoa eta audioa grabatzeko aukera ere eskainiko diete.



Detroit taldeak irabazi du lehiaketa. Aiaraldea.eus

ESKATU URA PITXERREAN



Arabak kalitate bikaineko ura dauka eta ingurumenaren alde egiten du.

Zuk ere lagun dezakezu ingurumenaren iraunkortasunaren alde egiten, ura behar duzunean pitxerrean ekartzeko eskatuz jabetxeetan.

Tantaz tanta, egunero keinu txiki bat eginez, gutxituko duzu plastikozko hondakinak.



TANTVKA

Arabako Foru Aldundiaren kanpaina bat da, ostalaritzarekiko eta arabar herritarrekiko elkarlanean.

Eskatu ura pitxerrean!

UDAKO ARGAZKI LEHIAKETA

Bidali zure argazkia irailak 21 aurretik



BOZKATZEKO EPEA
irailak 22-30

SARIA
Aiaraldea.eus-en boto gehien jasotzen dituen argazkiarentzat **Las casas de las cascadas** etxean 2 lagunentzat gau bateko egonaldia



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

Araba da erronka | El reto es Álava



kultura

Euskaraldia herrika antolatze bilerak deitu dituzte



Udan herrietan ezagutarazi dute kanpaina. Aiaraldea.eus

Testua
Izar Mendiguren Cosgaya

Euskaraldia dinamikan bu-ru-belarri sartuko da Euskal Herria azaroaren 23tik abenduaren 3ra. 11 egunez euskaraz bizitzea izango da erronka, eta horretarako "Ahobizi" eta "Belarripres-tak" aktibatu nahi dituzte. Egitasmoa eskualdean barrena an-

tolatzeko lan-taldeak jarri dituzte abian. Udan zehar herririk herri ibili dira dinamika azaltzen. Irailaren 17an egingo dute eskualdeko bilera. "Aiaraldeko hamai-kakoa" ere osatu dute, eta irailaren 22an aurkeztuko dute Laudion. Antolakuntzan lagundu nahi dutenek aiaraldekoeskalgintzakontseilua@gmail.com helbidera idatz dezakete.

The Taverners taldeak irabazi du Urdufolk txapelketa



Burgosera joan zen lehen saria, 1.200€. Aiaraldea.eus

Testua
Izar Mendiguren Cosgaya

Iraileko lehen asteburuan jokatzen zen Urdufolk txapelketa-ko finala. Bosgarrenez antolatu dute lehiaketa, eta finalistek soilik izan zuten oholtza gainean euren lana defendatzeko aukera. Burgoseko The Taverners taldea izan zen onena, epaileen buruz.

Hala, 1.200 euroko saria etxeratu zuten. Bigarren postua, berriz, Kabhala Band toledoarrentzat izan zen, eta hirugarrena Alicia Alonso & Guillermo Copello bi-bolinjoleentzat. Aiaraldea hedabideak finala osorik grabatu zuen, ekimenaren babesle ofizialetako bat izan baita. Finalaz gain, ostira-lean kontzertuak antolatu zituzten herritarren gozamenarako.

Iñaki Ruiz hil da, "Date el bote" saioko zuzendaria, besteak beste



Irailaren 3an zendu zen Iñaki Ruiz, 59 urteko telebista profesionala. EITBk eta Mediapro ekoizpen etxeko langileek adierazi dizkiete doluminak lagun eta senideei. Mediaproko behar-ginek nabarmendu dute pertsona umoretsua eta talentu handikoa zela.

Iñaki Ruizek zuzendu zituen "Rompecabezas", "Date el bote" eta "Atrápame si puedes" bezalako saioak eta Hostoil enpresako kidea zen. Errioxako telebistan ere lan egin zuen.

Iñaki Ruizek 1994an hasi zuen bere jardura profesionala telebistan Juanma Lopez De Iturriagaren eskutik. Amurrioko zenbait elkarte kide ere izan da: Mendiko Lagunak taldean edo Herriarenak jai koadrilan, kasu.

BABESTUTAKO EDUKIA

Hotel Orduña Plaza: bainuetxea, gimnasioa eta ikastaroak osasuna zaintzeko

Hotel Orduña Plazak ikasturte berriari ekingo dio eskaintza bereziarekin. Irailtik aurrera, bainuak hartzeko aukera eman ez ezik, gimnasioa erabiltzeko aukera ere ireki du. Horrez gain, hainbat ikastaro antolatze asmoa daukate, erabiltzaileek ariketa fisikoaren bitartez bere osasuna hobetzeko parada izan dezaten.



Hotel Orduña Plazako gimnasioa. HOP



Hotel Orduña Plazak osasunaren hainbat esparru asetzeko asmoz ekin dio 2018/2019 ikasturteari. Izan ere, aurtan bereziki bultzatu nahi du gimnasioa. Leku hori erabiltzeko ez da beharrezkoa izango bainuetxeko zerbitzuetako bazkide izatea, baina biak uztartu daitezke. Are gehiago, bi azpiegiturak baliatuz gero, beherapena egongo da hileko zein urteko kuotetan.

Aldi berean, gimnasioko edota bainuetxeko kidea izan gabe hirugarren aukera egongo da Hotel Orduña Plazara jotzeko: ikastaroak. Horiek ohitura osasuntsuak sustatzeko helburua dute, ariketa fisiko egokia bermatuta. Hain zuzen, yoga, zumba, pilates, mantenurako gimnasia, GAP eta indoor zikloak egingo dituzte. Goizeko eta arratsaldeko ordutegiak egongo dira horretarako; astelehenean, asteartean, asteazkenean eta ostegunean, alegia. Taldeak sortzeko, gutxienez 8 lagun beharko dira.

Izena emateko epea

Inskripzioa betetzeko epea irailaren 5ean ireki zuten eta 19an amaituko da, hau da, asteazkenean. Hotelera hurbildu beharko dira interesdunak hurrengo egun eta orduetan: astelehen eta asteazkenean 10:00etatik 14:00ak arte eta astearte eta ostegunetan 10:00etatik 12:00ak arte eta 16:00etatik 18:00ak arte.

Bestalde, Hotel Orduña Plazak gogoratu nahi du bainuetxea erabiltzeko eskaintza familiarra ere badagoela. Horri edo beste edozerri buruz informazioa eskuratu nahi badu norbaitek, zuzenean hotelera jo dezake, aurrez aurre azalduko baitiote nahi duena.

HOTEL ORDUÑA PLAZA



Foru Plaza, 15 URDUÑA www.hotelordunaplaza.com Tel.: 945 56 90 38

Kirola

Artziniegako Heziketa Fisikoko irakasle batek duela 10 urte baino gehiago sortu zuen herriaren izena mundu osora zabalduko zuen kirola: Artzikirola. Egun, munduko hainbat txokotan praktikatzen da, eta geroz eta gehiago ari da hedatzen, kirolarien berdintasuna eta elkarlana ardatz hartuta.

Artzikirola, mundua zeharkatu duen kirola



Testua **Aimar Gutierrez Bidarte**

Jose Ramon Rey artziniegarrak sortu zuen Artzikirola ize-neko kirol alternatiboa, bere ikasleekin praktikatzeo helburuarekin. Berdintasuna sustatuko zuen jarduera fisikoa sortzea zen Reyren helburua. Neskak eta mutilak elkarrekin jolasten jarri ditu Artzikirolak, kirol mistoa baita. Egun praktikatzen diren kirol hegemonikoetan ez bezala, Artzikirolean abiadura, koordinazioa eta talde lana dira faktore nagusiak, indarra eta kontaktu fisikoa alboratuz.

Hainbat kirol diziplina uztartzen dituen jarduera fisikoa da Artzikirola, aisialdirako eskaintza izatea helburu. Areto futbol edota eskubaloizelai batean jokatu daiteke. Jokalariak gomazko baloi bat esku zein oinekin darabilte eta aurkariaren atean sartzea dute xede nagusi. Baloia eskutan izanik, ordea, aurkarietako batek baloia duen jokalaria ikutuz gero, honek baloia lurrean utzi beharko du. Gehienez 15 pertsonako taldeak osa daitezke, aldi berean 6 jokalariz jolasten daudelarik, atezaina barne. Aldaketak noiznahi egin daitezke, epailearen baimekin gabe eta jokoa moztu gabe.

Hamarkada batean oihartzun handia izan du nazioartean Aiaraldean sortutako jarduera fisikohorrek. Munduko nazioarteko kirol alternatiboen zerrendan sartzea lortu du eta bere aurkezpen bideoak 14.000 erreproduktzio baino gehiago izan ditu. “Oso positiboa da hemen sortutako zerbait hain urrun ailegatu izana”, adierazi du Reyk. Artziniegatik mundura, Artzikirola Beirut (Libano), Mongolia edota Indonesiara iritsi da. Hego Amerikan ere geroz eta hedapen handiagoa du. Brasilen, Perun, Argentinan, Kolonbian eta Kuban



Pilotarekin trebezia eta abiadura beharrezkoak dira Artzikirolan. Aiaraldea.eus

praktikatzen da. Gainera, Jose Ramon Rey Habanako Unibertsitatean eta Mexikoko Chigagua hirian Heziketa fisiko eta kirol alternatiboen inguruko hainbat kongresutara gonbidatua izan da, besteak beste. “Zoriturrez, diru falta dela eta, ezin izan ditut bidaia horiek egin”, azaldu du artziniegarrak.

Inor ez da profeta bere herrian

Etxean, baina, ez du horenenbesteko arretarik jaso. Komunikabide handiek, kirol alternatiba gehienei bezala, ez diote jarraipen sakonik egin. Institutuzio publikoek ere ez dute interes handirik erakutsi. Jose Ramon Reyren hitzetan: “Malagako gobernuak eta Murtzia

eta Valentziako Unibertsitateek jakin-min gehiago izan dute Artzikirolaren inguruan Eusko Jaurlaritzak eta EHUK baino”.

Izan ere, Malagan bada beste kirol alternatibo bat, Artzikirolak bezala, berdintasuna oinarri duena. “Baloncodo” du izena eta ukondoarekin baloi handi bat kolpatuz jolasten da. Andaluziako Juntak apustu garrantzitsua egin du kirol eskaintza hori sustatzeko.

Katalunian sortu zen “Colpbol”-a ere indartsu dagoen kirol alternatiboa da. Aurten Espaniako bigarren txapelketa antolatu dute. Lau kirol alternatiba sortu dira azken urteetan Espaniar Estatuan, guztiak Heziketa fisikoko irakasleek sustatuak. Orain guztien artean koordi-

Artzikirola Libano, Mongolia edota Indonesiara iritsi da. Hego-Amerikan ere geroz eta hedapen handiagoa du: Brasilen, Perun, Argentinan, Kolonbian eta Kuban praktikatzen da

natzen ari dira elkarri lagundu eta proiektu ezberdinak gehiago indartzeko. Aurrerapausoak ukaezinak dira. Baina, Reyk nabarmendu duenez, “honek aurrera egiten badu, heziketa fisikokoaren munduan mugitzen diren irakasle eta begiralei esker da”.

Geroz eta gehiago

Hedapena geroz eta handiagoa da, kirola praktikatzen nahi duen orok interneten araudia bilatu eta praktikan jartzea besterik ez du. “Duela gutxi Almeriako areto-futbol talde baten zorion mezua jaso genuen”, oroitu du Reyk, “Hungarian zebiltzan Europako txapelketa bat jolasten eta Artzikirola beroketa fa-sean sartu zuten”.

FUTBOLA

Hodei Oleagak ametsa ukitu du Athleticen



Hodei Oleagak Athletic Clubeko 1. taldeko entrenamenduetan eta deialdietan parte hartu du. **Juanfer Oleaga**

Testua
Aitor Aspuru Saez

Udan nazioarteko futbolaren merkatuak bizi izan dituen mugimenduek lurrikara eragin dute Bilboko Athletic Clubean eta horrek Hodei Oleaga laudioarra hurbildu du bere helburua betetzera. 21 urteko atezaina klubeko lehen taldearekin aritu da bere postuan gertatu diren gorabeheren ondorioz.

Izan ere, Real Madrid taldeak Courtois jokalaria bereganatu ostean, Chelseak hutsune hori bete zuen Kepa Arrizabalaga fitxatuta, 80 milioi euroren truke. Txantxa ematen zuen, ondarrutarrak duela gutxi sinatu baitzuen Athleticarekin kontratu berria, Real Madridera joatea baztertu eta gero.

Halaber, kontratuen aferek, Unai Simón eta Alex Remiro atezainen egoera aldrebestu du.

Izan ere, Keparekin bizitakoaren ondoren, Athleticak estu lotu nahi ditu.

Horri gehitu behar zaio Iago Herrerin balizko jokalaria titularrak lesioa izan zuela. Anabasaran emaitza izan da Hodei Oleagak osatu dituela Liga hasierako deialdiak lehen taldean eta puntako jokalariekin igaro duela uda, bere aukeraren zain.

Lasaitasuna

Athleticeko atean sortu den zurrumbiloak, ordea, ez du izan eraginik Hodei Oleagan. Gazteak argi dauka bere lekua bigarren taldean dagoela, nahiz eta lehiaketaren hasieran bere tokia bestelakoa izan den.

Laudioarraren helburua da 2. B mailan askoz gehiago jokatzeko: "Aurreko denboraldian Unai Simonek Espainiako selekzioarekin jokatzeko zuzenaren bakarrak izan nituen minu-

tuak. Lehen taldearekin pozik ibili naiz, baina oraindik ez dut jokatu eta Bilbao Athleticak bi jardunaldi izan ditu". Berez, Bilbao Athletic kategorian gogorren lehiatzen da eta Oleagak nabaritzen du erritmoa, kalitatea eta exijentzia handia dela.

Beraz, gustura dabil filialean eta taldean dagoen giro ona goraiatzeko du: "Jende askok pentsatzen du postua eskuratu behar dugunez, ez dugula harreman onik".

Edonola ere, Oleagak ibilbide luzea egin du. CD Laudion hasi zuen bere lehen esperientzia eta 16 urterekin preferenteko taldean debuta egin zuen. Gero Athletic Clubak fitxatu zuen eta Arenas taldeari laga zion. Horren ostean, Baskonian protagonismo handia izan zuen eta aurreko denboraldian berriro Ibaigaineko diziplinara itzuli zen.

K1

Aratz Garmendia, euskal selekzioarekin Letoniara

Testua
Aitor Aspuru Saez

Euskal Herriko K1 kiroleko selekzioak Letonian hartuko du parte lehenengo aldiz Munduko Txapelketa Amateurrean. 3 borrokalari joango dira Rigara

urriaren hasieran eta Aratz Garmendiak EAE ordezkatzeko du, beste biek, ordea, Nafarroa eta Ipar Euskal Herria. Zehazki, urriaren 4an, 5ean, 6an eta 7an izango dira borroka Letoniako hiriburuan. Euskal Herriko Federazioak Galesko,

Bretainia Handiko eta Ipar Irlandako eredu jarraitu du Rigan jokatzeko. Federazioa erakunde pribatua da eta K-1, MMA eta Borroka (antzinako euskal kirola) sustatzen ditu, euskaraz, gainera.

BABESTUTAKO EDUKIA

Eskaintza berria Amurrioko Bañueta kiroldegian

Testua
Aitor Aspuru Saez

gi egongo balira, plazak zozketa-tuko lirakeke.

Amurrioko Bañueta Udal Kiroldegia erraztasun gehiago jarriko ditu jendeak izena eman dezan: irailean matrikula doakoa izango da gutxienez 6 hilabetez egongo direnentzat.

Horrez gain, 3 hilabetezko ikastaroak egongo dira umeen eta helduen igeriketa eta cycling-spinning kirolekin. Izena emateko aukera irailaren 17tik 20ra bitartean egongo da.

Urte osoak izango dira gainerako ikastaroak (aquagym, tonycycling, zumba, HIT, hipopresiboak, gimnasioa, pilates, yoga...). Inskripzio epea irailaren 24an hasiko da eta 27an bukatu. Jarduera guztiak urriaren 1ean abiatuko dira eta eskaera gehie-

Berritasunak

Kiroldegia elementu berriak gehitu dizkio bere jarduerari eta umeen igeriketa taldeek sailkapen berria izango dute 6 taldeetan: dortoka, karramarro, olagarrora, antxoa, izurde eta marrazo-epata-arraina. Bakoitzak txano ezberdina izango du.

Hori ez ezik, pertsona nagusientzako gimnasia egongo da eta eskaintza berriak: cardio-box, gaztezunba, functional training, gimnasia progresiboa, zirku itxura bizkortzaileak, dantza sevilarraren hastapena eta igeriketa helduentzat. Gainera, yoga taldea egongo da arratsaldeko azken orduetan. Halaber, zenbait ordutegi aldaketa egin dira.

Eskaintza 2018ko irailaren 30era arte

MATRIKULA DOAN

61,60€ -raino AURREZ DITZAKEZU

Instalakuntzen erabilera librea

- ✓ Igerileku klimatizatuak
- ✓ Jacuzziak
- ✓ Muskulazio aretoa
- ✓ Sauna
- ✓ Erabilera anitzeko aretoak
- ✓ Bainu turkiarra
- ✓ Kirol anitzeko kantxa
- ✓ Dutxa ziklonikoa
- ✓ Squasha
- ✓ Udako igerilekuak*
- ✓ Boulderra

* Bazkideak urtariletik

BAZKIDETZARAKO BALDINTZAK

- ✓ Irailean alta hartzeko
- ✓ Gutxieneko permanentzia: 6 hilabete (otsaila barne)
- ✓ Ordainketa guztiak egunean izatea ezinbestekoa

BAÑUETA KIROLDEGIA · Abiaga kalea, 2 · 01470 AMURRIO · Tel. 945 39 36 42

Kirola

DUATLOIA

Bide eta maila berridun Urduñako Mendi Duatloia



Parte hartzea sustatzeko gazteen maila erantsi diote probari. Irudian, iazko edizioko kirolariak. Aiaraldea.eus

Testua
Izar Mendiguren Cosgaya

“Gazte Duatloia” gehitu diote Urduñako Mendi Duatloia-ri. Hortaz, bi proba izango ditu aurtengo txapelketak: Urduñako Mendi Duatloia eta gazteen. Banaka eta taldeka lehiatu ahaliko dira partaideak; emakumezkoen, gizonezkoen edota kategoriatan mistoan. Irailaren 22an izango da hitzordua. Foru plaza bihurtuko dute abiapuntu eta helmuga. 17:00etan izango da lasterketa nagusia.

Gazteen duatloia, berriz, 19:30ean hasiko da. “17 urte artekoek hartu ahaliko dute parte”, zehaztu dute Karra Saez eta Gaizka Urruela antolakuntza taldeko kideek. Mendi bi-

zikletarekin eta lasterka osatu beharko dute ibilbidea denek. Informazio guztia www.umd.eus webgunean dago. Izen-ematea, aldiz, www.kirolprobak.com atarian egin beharko da.

Gazte Duatloia

Gazteentzat aurrenekoz ego kitu dute proba: “Jende gazteari parte hartzea eta duatloiarekin kontaktua errazteko. Gainera, gurasoekin lagunduta osatu ahaliko dute bidea”. Zirkuituari dagokionez, bizikleta gainean 4.86 kilometroko ibilbidea zeharkatu beharko dute, 61 metroko desnibelarekin. Korrika, aldiz, kilometro bat izango da gauzatu beharreko distantzia. Helduen sektoreak honakoak izango dira: 7 kilometro

korrika 257 metroko desnibelarekin, 16 kilometro bizikletaz 560 mailako desnibelarekin eta kilometro bat korrika 6 metroko desnibelarekin. “Ibilbidea teknikoki intentsoa eta aldakorra da: gune azkar eta mantsoak daude, igoerak eta jaitsierak, mendi bideak eta pistak... Korrika ere lehenbiziko kilometroak aldapa gora dira”. Antolatzaileren hitzetan, urtetik urtera hobetzen doan ekimena da Urduñako Mendi Duatloia: “Aurtengo ibilbidea %100 da bizikletagarria, eta 1, 7 eta 16 kilometroak sprintean egin litezke, jendeari zirkuitua luzea eta arraroa ez egiteko”.

Aiaraldea hedabideak dortsal bana zozketatuko du irailaren 17an webgunean.

GIMNASIA ERRITMIKOA

Maddi Otaola: “Kategoriari eustea izango da nire aurtengo helburua”

Testua
Izar Mendiguren Cosgaya

Espainiako txapelketa irabazi du Guadalajaran Maddi Otaola okondoarrak, senior kategorian. “Medikuntza ikasketak abiatuko ditut eta ez dakit zenbat denbora eskiani ahal izango diodan”, adierazi du. Egun Leioako Sakoneta klubean dihardu. Denboraldi berriari so, “kategoriari eustea izango da nire helburua”.



Maddi Otaola gimnasta, Okondon. Aiaraldea.eus

TXIRRINDULARITZA

Luisa Ibarrolak profesional mailara egin du jauzi

Testua
Txabi Alvarado Bñares

Ginestar-Delikia Sport taldeak fitxatu du kirolari sarataxoarra datorren ziklokross denboraldiari begira. Gauzak hala, Bizikleta.com taldea utzi du Ibarrolak, eta Amurrioko Txirrindularitza Klubarekin amaituko ditu errepideko eta mendiko txirrindularitza denboraldiak.

Saratxoarra oso pozik azaldu da emandako saltoarekin. Talde profesionallean egoteak atea irekiko dio material berria lortzeari eta orain arte eskura izan ez dituen norgehiagoketan parte hartzeari, munduko kopak kasu.

Dena den, Ginestar-Delikia Sport taldearekin duen kontra-

tua ziklokroserako da soilik. Gauzak hala, BTT denboraldian eta udako lasterketetan aritzeko parada izango du kirolari aiaraldearra.

Udan ere sasoian

Udan ere lasterketa ugaritan aritu da Ibarrola. Iruñean, esaterako, junior kategorian aurreneko postua lortu zuen, eta sailkapen orokorrean zazpigarrena.

Espainiako Ziklokross txapelketa irabazi zuen uztailen ere, eta ondorioz, Europako Kopan lehiatzeko txartela eskuratu zuen Ibarrolak. Austriako Grazz-Statteghirian izan zen proba, baina aiaraldearrak ez zuen zortea alde izan: 35. postuan bukatu zuen norgehiagoka.

LAUDIOKO
EUSKARAREN
JAIA 2018
irailak 28-29

erbalagun, barnetegiak, bertso
puskara, merkataritza plana, zi
euskarak batzen gaitu nea eu
sorgin zapatuak, eta euskaraz
bekak, bizi nahi oxigenoa euskar



Herriko plaza

Bidali zure zorion mezua agurrak@aiaraldea.eus helbidera irailaren 24a baino lehen



Ana
Zorionak, Ana! Bost besarkada erraldoi zure etxekoan partez. Maite zaitugu!
Etxekoak



Maria
Zorionak, Maria! Segi guztion bizitzak konpontzen, zutaz harro gaude eta!
Zure lagunak



Piki
Urte askotarako eta ikus dezagun. Maitasunez zure lagun guztien partez!
Lagunak



**BIDALI
ZURE
ZORION
AGURRA!**

Idatzi zure mezua eta bidali argazkia agurrak@aiaraldea.eus eta Aiaraldea.eus atarian plazaratuko dugu. Irailean argitaratuko da hamabostekariaren hurrengo zenbakia.

Denborapasak

	DEITURA	Bihia, garasua	Pl. garrasio mota	Galiziako herria
	Luzazabaleria	Azerio	Europar Batasuna	
	Kanadako herria			
	Egurra			
Nafarroako udalerria	Goizto da ingelesez	Ikastaroen hasieran	Su bizi, lana	
Haize zutak	Pl., idatzeko isurkaria	Siberiako sientzia	Errepublikatuz, gorotza	
			Errepublikatuz, txori mota	
			Pakistango ibai luzea	
Herri baxenabartarra			Kontso-nantea	
Oinaze			Zangoaren atala	
		Zezen zikiratu	Joaki naiz	
		1 eta 50	Akti, garai	
Etikari dagokio			Ernel	
Zatia			1 eta 500	Erbioren ikur kumikoa
		IZENA		
		Bokai biribila		
Ergatiboaren marka		Lodoaiko herriar		

✦ Diseinatzaile amurriarra

ERRAZA

2	3	9		8	4
4	8	9		5	2
5	6		4	8	7
7		6			8
8	3			5	4
9					6
2	5		1	4	
6		8		2	3
3			8	6	

					5
6	8				4
		4	2		7
			5		
2		6		3	
			8	2	6
9	4		2	7	6
		3			5
8	2	5	6	3	7

ZAILA

			7	8	
3	4			7	5
8				2	6
	5	3	7		
			9		4
		8			7
7	6		2	5	
		6	8		
	8			6	

	4	3			5
	3	8		2	
	8			7	
		5			
			3		4
7			2		1
			7	5	6
9		1			8
5				4	

DENBORAPASEN SOLUZIOAK

Sudoku, hitz-gurutzatuz eta hitz gezidunen soluzioak webgunean ikusgai: <http://www.aiaraldea.eus/users/denborapasak>



Lan-eskaintzak

ARESKETA IKASTOLA EUSKARA, FRANTSESA ETA KULTURA KLASIKOA IRAKASLEA. Hiru hilabeterako.

ETXEKO LANGILEA ETA ZAINZAILA. Amurrian.

LAN HARREMANETARAKO ZONALDEKO MANAGERRA. Araban Lidl enpresan

MANTENU MEKANIKORAKO LANGILEA. Lantegi batean aritzeko, lanaldi osoa

LAN-ESKAINZAK GEHIAGO AIARALDEA.EUS ATARIAN

Zozketa




10 haurrentzako **SARRERA + ASKARIA**



Zozketa data: irailaren 21ean, 12:00etan.
Parte hartu **www.aiaraldea.eus web** web atarian

Aiaraldea txiki



Eguzki Sistema

Eguzkiaren eta Jupiterren artean lau planeta daude: **MERKURIO**, **VENUS**, **LURRA** eta **MARTE**. Hain justu, ordena hori jarraitu beharko duzu labirinto honen bide zuzena aurkitzeko. Laukiz lauki joan behar duzu, ezker, eskuin, gora edo behera eginez, baina inoiz ez diagonalean.

Itzala

Zein da sateliteari dagokion itzal zuzena?

E maitzak

ZERBITZUAK EUSKARAZ ETA GAZTELANIAZ

- Arreta goiztiarra
- Logopedia
- Terapia Psikomotorra
- Laguntza Pedagogikoa
- Haur, nagusi, familia eta bikoteentzat laguntza psikologikoa
- Fisioterapia pediatrikoa

Jose Matia kalea 6, behea [Laudio] 688 69 41 16 oreka@gmx.es

Kontra

Mundutik Aiaraldeara

Miroslav Blaho

Rebeka Pázmányová Alexandra Podhradská

JAIOTERRIA
ESLOVAKIA (1998)

EGONDAKO TOKIA
LAUDIO

BIDAIAREN XEDEA
INGELES UDALEKUETAN BEGIRALE GISA ARITZEA



ESLOVAKIA



DESKRIBAPENA

Nahiko historia gorabeheratsua bizi izan zuen Eslovakiak XX. mendean. 1918. urtean Txekoslovakia osatu zuen Moravia eta Bohemiarekin batera. II. Mundu Gerraren hasieran Eslovakia Alemania naziaren menpe egon zen, harik eta Eslovakiako Altxamendu Nazionala gertatu zen arte. Gerraren ostean, herrialdea Sobietar Batasunaren orbitan egon zen, 1989. urtera arte. 1992an Eslovakiak independentzia adierazpena egin zuen.

AZALERA

49.035 kilometro koadro.

BIZTANLEAK

5,4 milioi biztanle.

HIZKUNTZA

Eslovakiera.

“Eslovakian ez dugu pintxopotea bezalako ohiturarik, adibidez”

Hainbat aste igaro dituzue Laudion. Zertan aritu zarete zehazki?

Rebeka: Enjoy English programan parte hartzen aritu gara begirale gisa. Iaz programan parte hartu zuen pertsona bat ezagutu genuen Glasgow hirian. Zirrara handia eragin zion esperientziak, eta aurrean bertan parte hartzeraz bultzatu gintuen. Biok eman genuen izena eta Audio Ikastolan aritu gara klaseak ematen. Haurrekin uneoro aritu gara ingelesez hitz egiten, gaztelera apur bat genekien arren. Benetako esperientzia izan da.

Esperientzia ona izan da, bezaz.

Alexandra: Oso esperientzia aberasgarria izan da. Umeekin nire ama hizkuntza ez den hizkuntza batean aritu naizen lehen aldian izan da. Ez da erraza izan, baina asko ikasi dugu.

Rebeka: Bazeuden ingelesez deuz ez zekiten umeak, baina, hala eta guztiz ere, hizkuntza horretan mintzatu gara eurekin, gauzak hainbat alditan eta modu askotan errepikatuta.

Glasgown bizi zarete, baina Eslovakiarrak zarete jatorriz.

Rebeka: Urtebete eman dugu Eskozian bizitzen, eta kultura ezberdintasun handiak daude herrialde horren, Eslovakiaren eta Euskal Herriaren artean. Askoz bizitza komunitarioagoa duzue hemen. Eskozian Unibertsitate giroko burbuila bizi izan dugu, zeinetan ikasle guztiak elkar ezagutzen duten, baina ez dago hemen topatu daitekeen herri giroa. Hemen benetan ikusi dezakezu pertsonak elkarren artean ezagutu eta laguntzen direla. Jende guztiaren arteko sare bat antzematen da.

Alexandra: Hemen egon garen

bitartean bertakoekin bizitzen egon gara, eta kideek zein bestelako lagunek ere lagundu digute hemengo giroan sartzen. Gauza asko ikusteko aukera izan dugu, turista hutsak izatera mugatu gabe.

Aiaraldeko eta Euskal Herriko hainbat txoko bisitatzeko parada ere izan duzue. Ezberdintasun asko topatu dituzue hemengo bizitzaren eta Eskoziako edo Eslovakiakoaren artean?

Rebeka: Erresuma Batuko jendea askoz indibidualistagoa da. Hemen, aldiz, nabaritzen da jendeari benetan axola zaiola albo-koari zer gertatzen zaion, enpatia handiagoa dagoela esango nuke. Nik behintzat hala sentitu dut.

Alexandra: Eslovakiako herri berekoak gara biak. 10.000 biztanle inguru ditu eta Laudionen tankerakoa da, mendiz inguratuta dago. Baina giroa ezberdina da. Ez

dugu pintxopotea bezalako ohiturarik, adibidez.

Zer moduz aritu zarete hemengo familiarekin?

Rebeka: Nire familiako kideek ez zekiten ingelesez. Gauzak hala, gaztelera komunikatu naiz eurekin.

Alexandra: Nire familiako ama oso ondo moldatzen zen ingelesez, eta gainontzeko kideak ere saiatzen ziren nirekin hizkuntza horretan komunikatzen. Nik ere eslovakiera apur bat irakatsi diet.

Oso pozik gaude esperientzia hau elkarrekin bizitzeko aukera izan dugulako. Txikitatik gara lagunak, eta unibertsitatea dela eta azkenaldian ez dugu elkarrekin egoteko aukera askorik izan. Horregatik, Laudiora elkarrekin etorri ahal izateak askoz aberasgarriagoa eta bereziagoa egin du egonaldia.

EGUNKARI HAU LAGUNTZEN DUTE:

